

# EUSKADIKO ORKESTRA

21-22



MAIATZA 3 MAYO

19:30

PAMPLONA / IRUÑA  
Auditorio BALUARTE Auditoriuma

[euskadikoorkestra.eus](http://euskadikoorkestra.eus)

# EUSKADIKO ORKESTRA

Zuzendari Titularra / Director Titular: ROBERT TREVIÑO

## KONTZERTINOA

### CONCERTINO

Barennie Moon

## II BIOLINAK / VIOLINES I

Waldemar Machmar (1)

Xabier de Felipe (3)

José Ignacio Aizpiri

Inmaculada Aramburo

Laura Balboa

Irene Echeveste

Marie Gaillard

Alexandre Kozouline

Oscar López

Maite Menéndez

Larraitz Oiartzabal

Ortzi Oihartzabal

Itziar Prieto

Maiaden Rezabal

Cristina Vértiz

## II BIOLINAK / VIOLINES II

Raquel Cortinas (2)

Xabier Gil (2)

Mikel Ibañez (3)

Amaia Asurmendi

Nathalie Dabadie

Virgile Demillac

Ludwik Hamela

Anne-Marie Harmat

Antoni Kosc

Luxi Lavielle (4)

Kamran Omarli

Ricardo Ruiz

Igor Torre

## BIOLAK / VIOLAS

Delphine Dupuy (2)

Pawel Krymer (2)

Monika Mazur (3)

Pascal Arnaud

Helline Boulet (4)

Natacha Dupuy-Scordamaglia

Justyna Janiak-Krymer

Arkaitz Martínez

Sergio Montero

Yann Seyrac

## BIOLONTXELOAK

### VIOLONCHELOS

Juan Ignacio Emme (2)

Gabriel Mesado (2)

Flore Lefevre (3)

Natalia Díaz

Jacek Grabe-Zaremba

Jon Larraz

Beatriz Linares

Tetiana Mertelova (4)

Pascale Michaud

Ian Swedlund

## KONTRABAXUAK

### CONTRABAJOS

Arkadiusz Maciejski (2)

Paloma Torrado (2)

Guangyao Zhao (3)

Victor Bogdanov

Noelia Grau (4)

Mehmet Sönmez

Pierre Torrent

## FLAUTAK / FLAUTAS

Hélène Billard-Alirol (2)

Bruno Claverie (2)

Ander Erburu

Oihana Kontxeso

## OBOEAK / OBOES

Silvia Esain (2) (4)

Hervé Michaud (2)

Rafael Alonso

Pascal Laffont

## KLARINETEAK / CLARINETES

Luis Cámara (2)

Juan Navarro (2)

Stéphane Langlois

Sara Zufiaurre

## FAGOTAK / FAGOTES

Marco Caratto (2)

François Proud (2)

Yuan Dai

Anne Charlotte Lacroix

## TRONPAK / TROMPAS

Jean-Luc Casteret (2)

Cristian Palau (2)

Adrián García Carballo

Marcos Garrido (4)

Xabier Sarasa

Salvador Tudela

## TRONPETAK / TROMPETAS

Didier Bousquet (2)

Miguel Echepare (2)

Jesús Castillo

Iker Urreta (4)

## TRONBOIAK / TROMBONES

Arnaud Mandoche (2)

Christophe Sánchez (2)

Javier Almarza

Daniel Ruibal (4)

## TUBA

Oscar Abella (2)

## TINBALAK ETA PERKUSIOA

### TIMBALES Y PERCUSIÓN

Anthony Lafargue (2)

Héctor Marqués (2)

Igor Arostegi

Xabier Peña

## HARPA / ARPA

Íván Bragado (2)

(1) Kontzertinoaren laguntzailea / Ayuda de concertino

(2) Bakarlaria / Solista

(3) Lehen tuttia / Primer tutti

(4) Aldi baterako kontratazioa / Contratación temporal

Eskerrik asko! ¡Gracias!

Euskadiko Orkestra sortu zen une beretik, 40 urtez, tronbojole izan ostean, Javier Almarazak azken abono-programa izango du honakoa. Hasiko duzun ibilbidea zorionekoa izatea opa dizugu eta bihotzez eskerztzen orkestraren garapenari egindako ekarpena.

Javier Almarza ha sido trombón de Euskadiko Orkestra desde que esta se fundó hace 40 años, y este será el último programa de abono en el que participará. Te deseamos todo lo mejor en esta nueva etapa y te agradecemos de corazón tu contribución al desarrollo de la orquesta.



# Mahler

**3** MAIATZA  
MAYO



**Robert Treviño**  
Zuzendaria ° Director



**Sarah Fox**  
Soprano ° Soprano



**Justina Gringyte**  
Mezzosoprano °  
Mezzosoprano



**Donostiako Orfeoia**  
Abesbatza ° Coro

## EGITARAUA ^ PROGRAMA

I

**GUSTAV MAHLER** (1860-1911)

**Sinfonia nº2 en do menor [80']**

Argitaletxoa / edita: Universal-Edition A.G.

- I. Allegro maestoso
- II. Andante moderato
- III. In ruhig fliessender Bewegung
- IV. Ulricht (Primeval Light)
- V. Im Tempo des Scherzo

Babeslea / Patrocina

**Ingeteam** 50 YEARS  
ELECTRIFYING  
A SUSTAINABLE  
FUTURE

# Mahler

**Musikagile bohemiarren sorkuntza ikaragarria, bizitza eta heriotzaren arazoa ebazten duena berpizkundearekin.**

**G**aur arratsaldeko kontzertuarekin, **Robert Treviño** haratago joan da Euskadiko Orkestrarekin egiten ari den bidaia mahlieriarrean, aurreko denboraldietan, *9 Sinfonia eta Lurraren kantaren* buru izan ondoren. Gainera, 2020an pandemiaren ondorioz bertan behera geratu zen obra bat berreskuratu dugu –Euskadiko Orkestrarentzat balio sinbolikoa hartu du ekintza horrek–: **Gustav Mahlerren 2. Sinfonia, Berpizkundearena**, hain zuzen. Sei urte eman zituen konpositore bohemiarrek sorkuntza hori lantzen, eta bizitzaren eta heriotzaren inguruan sakonki hausnartzen du ordu eta erdiko iraupena duen obra horretan. Lan honekin Mahlerrek lehenbizikoz erantsi zion giza ahotsa sinfonia bati eta beste munduaren gaia jorratu zuen bere baitan. Bere geroko sinfonietako askotan oinarrizko bilakatuko ziren osagai horiek.

Treviñok arrakasta handia lortu du nazioarteko agertoki garrantzitsu ugaritan Mahlerren lanak zuzentzen: haren musikarekin egin zuen debuta Municheko Orkestra Filarmonikoa zuzenduz (5. Sinfonia, 2016an) eta, horren ondoren, Londresko Orkestra Sinfonikoa zuzendu zuen (zehazki, 3. Sinfonia, 2017an); azkenik, Mahler aukeratu zuen 2017ko urrian Euskadiko Orkestraren titular gisa eman zuen lehen kontzerturako, konkretuki, haren 1. Sinfonia. Gaurkoan Mahlerren musikan espezializatutako bi kantari bakarları izango ditu lagun, **Sarah Fox** sopranoa eta **Justina Gringyte** mezzosopranoa, bai eta **Donostiarra Orfeoia** ere; sinfonia hau Orfeoiaren aurkezen-gutunean bilakatu da eta jaialdi ospetsu ugaritan abestu du, esaterako Luzernakoan, Claudio Abbadok zuzenduta.

1891n, Mahler Budapestetik Hanburgora joan eta hiri horretako opera ospetsuaren ardura hartu zuen. Bertan, Hans von Bülow Orkestra Filarmonikoko kontzertuen zuzendari mitikoarekin elkartu zen, zeinak laster adierazi baitzuen miretsi egiten zituela Mahlerren zuzendaritza-gaitasunak, Wagnerren Siegfrieden interpretazio arrakastatsu baten ondoren. Bülow Mahlerren aholkulari bihurtu zen Hanburgo eta, haren jarraon onak animaturik, egun batean bere konposizio-lanak erakustera ausartu zen, beretzat gauzarik garrantzitsuena izanik. Ez zuen esperotako erreakcioa jaso. «Bülowrentzat nire Totenfeier jo nuanean, Bülow oso urdui jarri zen, eskuekin belarriak kolpekatu eta oihu egin zuen: "Zure musikarekin alderatuta, Tristanek Haydnen sinfonia bat bezain obra simplea ematen du! Hau ere musika bada, orduan nik ez dut musikaz ezertxo ere ulertzan!"».

Mahler, zeina ez baitzen gai izan hiru urtean ezer idazteko, biziki minduta sentitu zen hitz horiek entzutean, eta are sakonago murgilda zen sorkuntza-krisian. Mahlerrek ez zekien, ordea, Bülowk lehendik ere adierazi zuela erabat arbuiatzan zuela Mahlerren konpositore-alderdia. Izan ere, Mahlerrek Meiningen hiriko bizitza musikalean postu bat eskuratu nahi zuenean gertatu zen hori, 1888ko maiatzean Leipzigeko opera utzi ondoren. Meiningeneko Gorteko Antzokian Richard Straussen lan egiten zuen garai hartan; horrek, Mahlerren eskaera baloratzeko ari zela, Weberren *Die drei Pintos* operaren haren edizioa erakutsi zion Bülowri (izan ere, Mahlerrek edizio hori lantzen eman zuen 1887 osoa). Bülow, ohi bezala zintzotasun basatiz mintzatzuz, honela definitu zuen moldaketa hura: «Pastiche hutsa, zirtzilkeria lotsagarri eta zaharkitua. Goragalea baino ez dit ematen». Mahlerrek ez zuen Meiningeneko lanpostu hura lortu eta horregatik joan behar izan zuen, azkenean, Budapestera.

Nolanahi ere, *Totenfeier* poema sinfonikorako inspirazioa aipatu berri dugun Weberren operan egindako lanari estuki lotuta iritsi zitzaison. Hain zuzen ere, *Die drei Pintos* estreinatu zen gauean, 1888ko urtarrilaren 20an, Leipzigen. Emankizunaren ondoren, loren betetako areto batean harrera egin zioten Mahlerri. Ez dirudi halako leku bat desatsegina denik, baina giro hura oriomenean grabatuta geratu zitzaison Mahlerri, amesgaiztoetan agertu ohi zitzaison eta obsesionatu egin

zuen, haluzinazioak jasateraino, non bere burua lore-ofrendaz inguraturiko hilkutxa batean ikusten baitzuen. Mahler izugarri asaldatu zen, hainbeste, ezen, 1. *Sinfonia* amaitu ondoren, martxoan, bere heriotza propioaren ikuskari horren transkripzio musikalean lanean hasi baitzen berehalako: *Totenfeier* izango zenean (*Hileta-erritua*), hain zuzen. Eta poema sinfoniko gisa sortu zuen, bere lagun Siegfried Lipinerrek Adam Mickiewiczen polonierazko *Dziady* poema epikoaren itzulpenean gaingiroki oinarrituta. Alabaina, eta eskuizkribuan «*Sinfonia Do maiorrean / Lehen mugimendua*» idatzi bazuen ere, *Totenfeierrekin* jarraitzeko plan zehatzik gabe egin zuen, obra independente gisa interpreta zitekeela pentsatu baitzuen.

Horixe da sei urte geroago Mahlerrek idatziz utzi zuen programa, berregokitua, 2. *Sinfonia* monumentalaren lehen mugimendu bihurtu zenean *Totenfeier*: «Maite dugun norbaiten hilkutxaren aldamenean gaude. Pertsona horren bizitza, borrokak, grina eta nahiak, beste behin eta azken aldiz, gure begien aurretik pasatzen dira. Eta orduan, sakon-sakonean asaldatzen gaituen une larri eta hunkigarri horretan gaudela, ahots izugarri serio bat jabetzen da gure bihotzaz, eguneroko bizitzaren zalaparta gorgarrian oharkabeen pasatzen zaigun ahots bat, hain justu ere: "Eta orain zer? Zer da bizitza hau? Zer da heriotza hau? Bizitza honetaz haragoko existentziarik ba al dugu? Hau guztia amets nahasi bat da ala, aitzitik, bitzitzak eta heriotza honek esanahirik al dute?" Eta galdera horri erantzuna aurkitu behar diogu bizitzen jarraitu nahi badugu».

Patuak oso presentzia handia izan zuen Mahlerrengan, eta patuak ekarriko zion, hain zuzen, amaiera ironiko bat Hans von Bülowrekin zuen harremanari; hala, bere musika hain gutxi estimatzen zuen gizon haren heriotzak are partitura handi eta konplexuago bat konposatzera bultzatuko zuen Mahler. 1892aren amaieran, Bülowren osasuna asko okertu zen eta Mahlerri Hanburgoko Orkestra Filarmonikoan zuen lanpostua eman zion. Azkenean, 1894ko otsailean hil zen Bülow, eta Mahlerrek, heriotza horren berri atsekabez izan zuenean, bere adiskide Josef Försterri deitu eta, tristura bizian, pianoz interpretatu zuen bere *Totenfeier*, halako zirrara, ezen Försterrek pentsatu baitzuen «hildakoaren omenez» ari zela horretan. Geroago, Bülowren hiletan, Hanburgon, abesbatza batek Friedrich Klopstock olerkari prerromantikoaren *Die Auferstehung (Berpizkunde)* ereserkia interpretatu zuen. «Tximista batek bezala jo ninduen», gogoratu zuen Mahlerrek. «Une hartan sentitutakoa soinuaren bidez birsortu behar nuen». Hori izan zen, hala, 2. *Sinfoniaren* azken mugimendurako inspirazioa, non koruak Klopstocken bertsoak abesten dituen.

Baina, lehen hileta-erritaren eta azken berpizkundearen artean, sinfoniarik oso pasarte askotarikoak zeharkatuko zituen. Bigarren mugimendurako, Mahlerrek *ländler* bat asmatu zuen, baina bigarren mugimendu horren izaera goxoa hirugarren mugimenduko dantza ia makabro baten agerpenak erabat suntsitzen du. 1896an idatzi zituen programa-ohar batzuetan, Mahlerrek honela definitu zuen bigarren mugimendua: «Oroitzapen bat da: heroi honen bizitzako zorion-une bat... aspaldi ahaztutako zorioneko ordu baten irudia, orain ariman argi-izpi baten gisara sartzen dena». Hirugarrena, ordea, honela deskribatu zuen Mahlerrek: «Amets malenkoniatu horretatik esnatu eta zentzugabekeria iruditzen zaizun bizitzaren nahasmenera itzuli behar duzunean bezala [...]]; izan ere, bizitza mamu beldurgarri bat da zuretzat, eta nahigabezko oihu batez aldentzen zara harengandik».

*Urlicht* laburraren ondoren, zeinetan Mahlerren hitzetan, «fede bakunaren ahots hunkigarriak gure belarriak lasaitzen dituen», sinfonia bere *finala* itzelera (nola intentsitateari gagozkiola hala iraupenari dagokienez) iristen da. Mahlerrek honako hau idatzi zuen: «Beste behin ere galdera beldurgarriei egin behar diegu aurre. Ahots ozen bat entzuten da: "Izaki bizidun guztien amaiera iritsi da, Azken Auzia gerto dago". Lurra dar-dar egiten du, hilobiak ireki egiten dira, eta hildakoak altxatu eta prozesioa amaigabe batean elkartzen dira... [...] Kexua ozenkiago altxatzentz da: gure zentzumenek abandonatu egiten gaituzte, eta kontzientziak huts egiten digu betiereko espiritu hurbil dugula sentitzen dugunean. Azken tronpeteta entzuten da... Urretxindor baten urruneko kantua entzun dezakegu, ozta-ozta bada ere, lurreko bizitzaren azken oihartzun dardartia... Eta hona hemen! Ez da auzi bat... Ez dago ez zigorrik ez saririk. Erabateko maitasunak bakarrik argitzen du gure arima».

# Mahler

Creación inmensa del compositor bohemio que resuelve el problema de la vida y de la muerte con la resurrección.

**C**on el concierto de esta tarde, **Robert Treviño** da un paso más en su travesía mahleriana junto a Euskadiko Orkestra, tras haberla liderado en la *Sinfonía nº9* o *La canción de la Tierra* en temporadas anteriores. Rescatamos además una obra que se suspendió en 2020 por la pandemia, y cuya recuperación adquiere un valor simbólico para Euskadiko Orkestra, ya que se trata de la *Sinfonía nº2, "Resurrección"* de **Gustav Mahler**. Una creación que llevó seis años de trabajo al compositor bohemio y que, en su hora y media de duración, realiza una profunda reflexión en torno a la vida y la muerte. En ella, Mahler introdujo por primera vez la voz humana y la temática ultraterrenal, que habrían de ser centrales en gran parte de sus sinfonías posteriores.

Treviño ha cosechado el éxito en importantes escenarios internacionales dirigiendo a Mahler: debutó con su música frente a la Filarmónica de Múnich (*Sinfonía nº5*, en 2016) y la London Symphony Orchestra (*Sinfonía nº3*, en 2017), y escogió a Mahler (*Sinfonía nº1*) también para su primer concierto como titular de Euskadiko Orkestra, en octubre de 2017. Hoy estará acompañado de dos solistas vocales especializadas en la música de Mahler, la soprano **Sarah Fox** y la mezzosoprano **Justina Gringyte**, y del **Orfeón Donostiarra**, que ha hecho de esta sinfonía su carta de presentación, habiéndola cantado en festivales tan prestigiosos como el de Lucerna bajo la dirección de Claudio Abbado.

En 1891, Mahler se había trasladado de Budapest a Hamburgo para hacerse cargo de la prestigiosa ópera de la ciudad. Allí coincidió con el legionario Hans von Bülow, director de los conciertos de la Filarmónica, quien pronto declaró su admiración por las dotes como director de Mahler tras una triunfal representación de *Siegfried* de Wagner. Animado por la buena disposición de Bülow, erigido en su mentor en Hamburgo, Mahler se atrevió cierto día a mostrarle su trabajo como compositor, el más importante para él. La reacción que obtuvo no fue la esperada. “Cuando toqué mi *Totentfeier* para Bülow, este cayó en un estado de extrema tensión nerviosa, se golpeó las orejas con las manos y exclamó, ‘¡Al lado de su música, *Tristán* suena tan simple como una sinfonía de Haydn! ¡Si esto sigue siendo música, entonces yo no entiendo absolutamente nada de música!’”.

Mahler, que no había sido capaz de escribir nada en tres años, se sintió profundamente herido por el comentario y su crisis creativa se agravó. Lo que Mahler no sabía era que Bülow ya había mostrado con anterioridad un profundo rechazo por su faceta de compositor. Fue con motivo de la aspiración de Mahler a hacerse con un puesto en la vida musical de Meiningen, tras abandonar la ópera de Leipzig en mayo de 1888. En el Teatro de la Corte de Meiningen trabajaba por aquel entonces Richard Strauss, quien, valorando la solicitud de Mahler, le mostró a Bülow su edición de la ópera *De drei Pintos* de Weber, en la que Mahler había estado trabajando a lo largo de 1887. Bülow, con su característica brutal sinceridad, definió aquel arreglo como “un pastiche, una infame, anticuada bagatela. Simplemente me da náuseas”. Mahler, sobra decirlo, no obtuvo el puesto en Meiningen y por eso terminó en Budapest.

En cualquier caso, la inspiración para *Totentfeier* le llegó intimamente ligada a su trabajo en la ópera de Weber que acabamos de citar. Concretamente, a la noche del estreno de *Die drei Pintos*, el 20 de enero de 1888, en Leipzig. Tras la representación, Mahler acudió a una recepción que se le brindó en una sala repleta de flores. Aunque el lugar no parezca, a priori, desagradable, el ambiente se quedó grabado a fuego en su imaginación, apareciéndose en sus pesadillas y obsesionándose con él hasta sufrir de alucinaciones, en las que se veía a sí mismo en un féretro rodeado de ofrendas florales. Tanto se alteró a Mahler que, tras finalizar su *Sinfonía nº1* en marzo, se puso a trabajar inmediatamente en la transcripción musical de esta visión de su propia muerte, su *Totentfeier* (Rito funeral). Escogió para ello la forma de un poema sinfónico, basado someramente en la traducción que su amigo Siegfried Lipiner había realizado del poema épico polaco *Dziady* de Adam Mickiewicz. Pero, aunque anotó en el manuscrito “Sinfonía en Do mayor / Primer movimiento”, lo hizo sin ningún plan concreto para la continuación de *Totentfeier*, que consideró que podía interpretarse como una obra independiente.

Este es el programa, readaptado, que Mahler dejó por escrito seis años más tarde, cuando *Totentfeier* pasó a convertirse en el primer movimiento de la monumental *Sinfonía nº2*: "Estamos junto al ataúd de una persona muy querida. Su vida, sus luchas, sus pasiones y aspiraciones, una vez más y por última vez, pasan ante nuestros ojos. Y ahora, en este momento de gravedad y emoción que convulsa nuestro más profundo ser, se apodera de nuestro corazón una voz terriblemente seria, que nos pasa desapercibida entre el ensordecedor bullicio de la vida diaria: '¿Y ahora qué? ¿Qué es esta vida y esta muerte? ¿Tenemos una existencia más allá de ella? ¿Es todo esto un sueño confuso, o tienen la vida y esta muerte un significado?' Y debemos responder a esa cuestión si queremos seguir viviendo".

El destino, siempre tan presente para Mahler, depararía un final irónico a su relación con Hans von Bülow, ya que la muerte de quien tenía en tan poco estima su música terminaría animándolo a componer una partitura aún más grande y compleja. A finales de 1892, la salud de Bülow estaba muy resentida y le cedió a Mahler su puesto en la Filarmónica de Hamburgo. Finalmente fallecería en febrero de 1894 y Mahler, consternado al conocer la noticia, llamó a su amigo Josef Förster y, en un arrebato de tristeza, interpretó para él al piano su *Totentfeier*, con tal emoción que Förster pensó que lo estaba haciendo "en memoria del fallecido". Más tarde, durante el funeral de Bülow en Hamburgo, un coro interpretó el himno *Die Auferstehung* (La resurrección) del poeta prerrromántico Friedrich Klopstock. "Me golpeó como un relámpago", recordaría Mahler. "Lo que había experimentado en ese momento, ahora tenía que recrearlo en sonido...". Aquello fue la inspiración para el movimiento final de la *Sinfonía nº2*, en el que el coro entona los versos de Klopstock.

Pero, entre el primer rito funerario y la resurrección final, la sinfonía habría de atravesar episodios muy diversos. Para el segundo movimiento, Mahler ideó un *ländler* cuyo apacible carácter sería destruido abruptamente por la aparición de una danza casi macabra en el tercero. En unas notas al programa que escribió en 1896, Mahler definía el segundo movimiento como "un recuerdo: un momento de dicha de la vida de este héroe... la imagen de una hora de felicidad olvidada hace mucho tiempo, que ahora entra en el alma como un rayo de luz". El tercero, sin embargo, era para él "como cuando te despertas de este sueño melancólico y tienes que volver a la confusión de la vida [...] que te parece un sinsentido, un fantasma espantoso, del que tal vez te alejas con un grito de disgusto".

Tras la breve *Urlicht*, en la que, según Mahler, "la voz conmovedora de la fe sencilla calma nuestros oídos", la sinfonía desemboca en su tremendo –tanto en intensidad como en duración– *finale*. Sobre él, Mahler escribió: "Nos enfrentamos una vez más con preguntas aterradoras. Se escucha una voz que clama en voz alta: 'Ha llegado el fin de todos los seres vivos, el Juicio Final está cerca... La tierra tiembla, las tumbas se abren, los muertos se levantan y fluyen en una procesión interminable... [...] El lamento se eleva más alto: nuestros sentidos nos abandonan, la conciencia falla ante la cercanía del espíritu eterno. Se oye la última trompeta... Apenas alcanzamos a captar el canto lejano, apenas audible, de un ruiseñor, último eco trémulo de la vida terrena... ¡Y he aquí! No es un juicio... No hay castigo ni recompensa. Solo un amor abrumador ilumina nuestro ser".

Mikel Chamizo

HURRENGO ABONU  
KONTZERTUA  
PRÓXIMO CONCIERTO  
DE ABONO  
**MAIATZA 19 MAYO**  
**19:30**

Dutilleux  
+ Elgar  
Catalán

SARRERAK / ENTRADAS  
**10€ < 35€**  
- euskadikoorquestra.eus  
- baluarte.com  
- Taquilla Baluarte leihatila



# THE REAL DREAM *team*



SÉ PARTE DE  
LA TRANSICIÓN ENERGÉTICA

BE A  
HERO.

Planetaren jasangarritasunarekin konprometituta eman  
ditugun bost hamarkada hauek, batez ere, **inkonformistak**  
izaten irakatsi digute.

Gure planetarekin dugun harremana sendatzeko modu  
bakarra dena zalantzat jartzea delako. **Trantsizio  
energetikoaren** prozesu geldiezinaren protagonistak izan  
behar duten horietatik hasiz.

Horregatik, INGETEAMen helburua milaka **pertsonen talde  
zoragarri bat zuzentza** da. Benetako pertsonak, zu bezala,  
konponbidearen eta ez arazoaren parte izan nahi dutenak.

Denbora partzialeko **heroikak**, gu bezala, egunero, gizateriaren  
etorkizunaren alde borrokatzentzen dutenak.

Eskerrik asko **talde errepikaezin baten** parte izateagatik.